

ESPERIMENTU ZIENTIFIKOA SORTZEKO BIDEOAREN LANKETA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXIEGI
ESPERIMENTUA	Esperimentua guztiz lotuta dago gaien landutako edukiekin.	Esperimentua guztiz lotuta dago gaien landutako edukiekin, baina oinarriko alderdiren bat edo alderdi garrantzitsuren bat falta da.	Esperimentuak badu nolabaiteko lotura edukiekin, baina ez dago argi antolatuta eta garatuta.	Esperimentuak ez du loturarik edukiekin, eta gaiarekin lotuta ez dagoela sumatzen da.
SARRERA	Sarrera argia da, informazioa ematen du, eta modu eraginkorren adierazten du esperimentuaren testuingurua.	Sarrerak informazio orokorra ematen du, baina ez du testuingurua osorik edo argirik azaltzen.	Sarrera oinarrikoa da, eta ez du esperimentua ulertzeko garrantzizko informaziorik.	Ez dago sarrerarik, edo nahasia da eta ez du informazio nahikoa ematen.
ESPERIMENTUAREN HELBURUAK	Helburuak argi eta ondo definituta daude, eta esperimenturako garrantzitsuak dira.	Helburuak aurkeztu dira, baina ez dira argiak, edo ez dira garrantzitsuak esperimenturako.	Helburuak nahasiak dira edo ez dute balio esperimentuaren helburua ulertzeko.	Ez da helbururik aurkeztu, edo ez dute garrantzirik esperimenturako.
ERABILITAKO MATERIALAK	Erabilitako material guztiak modu argian zehaztu dira, zenbatekoak eta zehaztasunak jasoz.	Material gehienak zerrendatu dira, baina informazio zehatza edo kuantitatiboa falta daiteke.	Material batzuk aipatzen dira, baina esperimentua egin ahal izateko informazio gakoa falta da.	Ez dira materialak aipatzen, edo zerrenda nahasia edo osatugabea da.
ERABILITAKO METODOA	Metodoa zehatz-mehatz eta modu koherentean deskribatu da. Esperimentuaren pausoak osotasunez eta modu ulergarrian azaldu dira.	Metodoa egokia da, baina xehetasun garrantzitsuren bat falta da.	Metodoa nahasia da, eta pausoak ulertzeko informazio gutxi eman da. Informazio eta argitasun gehiago behar da.	Ez da metodoa deskribatu, edo ez da ulertzen. Ez da esperimentua modu argian azaldu, eta, ondorioz, ezin da prozesua ondo ulertu.
LORTUTAKO EMAITZAK	Emaitzak modu argian azaldu dira, datu zehatzekin, eta ondo irudikatu dira.	Emaitzak aurkeztu dira, baina ez dira behar bezain argiak, edo zehatzago adieraz zitezkeen.	Emaitzak jaso dira, baina nahasiak dira eta ez dira modu argian adierazi.	Ez dira emaitzak jaso edo jasotakoak ez du inolako garrantzirik.

ONDORIOAK	Ondorioak ondo oinarrituta daude, eta esperimentuaren emaitzak irudikatzen dituzte, duten garrantzia adieraziz.	Ondorioak jaso dira, nahiz eta lortutako emaitzetan guztiz oinarrituta ez dauden.	Ondorioak oso oinarritzkoak dira, eta ez daude ondo lotutako lortutako emaitzekin.	Ez da ondorioak jaso, edo aurkeztutakoak ez dute garrantzirik eta nahasiak dira.
BIDEOAREN KALITATEA (EKOIZPENA ETA EDIZIOA)	Bideoak kalitate handia du, ondo editatuta dago, eta ezagutza tekniko bikaina adierazten du.	Bideoak kalitate ona du, nahiz eta edizioan inperfekzio txikiak egon daitezkeen.	Bideoak kalitate onargarria du, baina bistaratzeari kalte egiten dioten akats tekniko batzuk ditu.	Bideoak kalitate txikia du, eta ulertzea eragozten duten ekoizpen-akats larriak ditu.
AURKEZPENA ETA AHOZKO ARGITASUNA	Aurkezpena argia da, tonua egokia da, eta puntuak ondo artikulatuta daude. Konfiantza erakusten du.	Aurkezpena ona da, nahiz eta etenak edo zalantzak nabaritzen diren, argitasunaren eta arintasunaren kalterako.	Aurkezpena onargarria da, baina zati batzuetan arintasuna eta argitasuna falta da.	Aurkezpena eskasa da, eta, argitasun- eta arintasun-falta direla eta, zaila da edukiak ulertzea.
SORMENA ETA BERRIKUNTZA	Esperimentuaren aurkezpenean sormen- eta berrikuntza-maila altua nabaritzen da.	Aurkezpenean sormena erabili da, baina ez dira berrikuntza posible guztiak aztertu.	Sormena minimoa edo oso oinarritzkoa da, aurkezpenean berritzeko ahalegin txikiekin.	Aurkezpenak ez du sormenik edo berrikuntzarik erakusten, eta emaitza guztiz estandarra da.